

El Consejo Escolar insta a Lakua a no improvisar y planificar ya el curso

Ante el escenario abierto por la pandemia, el Consejo Escolar de la CAV insta a Educación a «preparar, planificar y organizar» el nuevo curso escolar antes de verano y en colaboración con la comunidad

educativa para «evitar improvisaciones». Además, teniendo en cuenta que las necesidades «serán mayores» realiza un llamamiento a la solidaridad, la responsabilidad y la generosidad. >5



► 30 Mayo, 2020

Ikasturtea uda aurretik prestatzea eskatu du Eskola Kontseiluak

GARA | DONOSTIA

EAEko Eskola Kontseiluak Lakuako Gobernuako Hezkuntza Sailari atzo gomendatu zion datorren ikasturtea uda baino lehenago «prestatu, planifikatu eta antolatzea». Prestaketa hori hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan egiteko eskatu zion, «inprobisazioak saihesteko», koronabirusaren pandemiak sortutako ezohiko egoera dela eta.

Atzo igorritako ohar batean, kontsultarako eta aholkularitzarako erakunde horren batzorde iraunkorrak Hezkuntza Sailari aholkatzen dio ikastetxeen autonomian eta erabaki partekatuetan oinarritutako gobernanta moduan sakontzea.

Halaber, azpimarratzen du koronabirusaren pandemiak sortutako egoeran beharrak «handiagoak» izango direla, eta, beraz, dei egiten die hezkuntza-komunitate osoaren eta Administrazioaren elkartasunari, erantzukizunari eta eskuzabaltasunari, «behar diren antolamendu-neurri guztiak har daitezzen, baliabide guztiak optimizatu eta handitzeko eta, orain inoiz baino gehiago, ekitatea bermatzeko».

Udako jarduerak

Ikasturte honen amaierarako eta 2020ko udarako, Eskola Kontseiluak, besteak beste, ikasle bakoitzaren diagnostiko «indibiduala, erreala eta zehatza» egitea proposatzen du, beharrezkoa bada neurri pedagogikoak indartzeko esku hartzeko.

Azken kasu horretan, udako jardueren planifikazioaren alde egiten du, «familiarentzat zama ez diren jarduerak» egitea gomendatuz. Aukera hori euskara eta aisialdia indartzeko ere aprobetxatu daitekeela nabarmentzen du Eskola Kontseiluak.



Hainbat ikasle ikasgeletara itzuli dira deskonfinamenduari bigarren fasean. Irudian, Donostiako Axular Lizeoa. G. RUBIO | FOKU

ZAINTZA

Eskola presentzialetan agian ikasle gutxiago egongo direla kontuan izanda, Eskola Kontseiluaren iritziz, ikastetxeek zaintza funtzioa bete behar dute, «familiaren kontziliaziorako» beharrezkoa dela uste baitu.

Irailera begira -2020/21 ikasturtea orduan hasiko dela aurreikusiz-, Eskola Kontseiluak modu berezian eskatu zuen ikasleei «harrera pertsonala eta arreta emozionala» eskaintzea; batik bat, gizarteratze-programei eta aniztasunaren tratamenduari dagokienez, eta helburu horretarako «beharrezko bitartekoak» ezartzea.

Eskolen digitalizazioa

Adierazi duenez, familiek aurreikusitako diren antolamendu-aldaketa guztien berri izan behar dute, eta pandemian egindako ahalegin digitala «aprobetxatu eta hobetu» behar da, «ikaskuntzarako ohiko tresna izan dadin», betiere ikasle guztien sarbide digitala bermatuta.

Horretarako, eskola publikoak digitalizatzeke plan urgentea

eskatu zion Lakuako Gobernuo Hezkuntza Sailari.

Proposatzen duen beste neurrietako bat «curriculum oinarritzeko eta ezinbesteko gaitasunetara egokitzea eta murriztea»

da, «gaitasun pertsonal, komunikatibo eta digitalei» lehentasuna emanez.

Motibazioa handitu

Covid-19aren osteko egoera batean hezkuntza bermatzeko beharrezkoak diren aldaketei dagokienez, Eskola Kontseiluak proposatu zuen pandemian ikasitakoa aintzat hartzea, «ikasleentzako motibazioa handitu eta ikasleentzako esanguratsua lortzen duten metodologiak abian jartzeko, eta ikaslearen autonomia sustatzeko eta esperientzia osoa eta ikerketa sustatzeko».

Bere esanetan, halaber, eskola presentzialetan ikasle gutxiago egon behar badira gela bakoitzean, kontuan hartu beharko da eskolak zaintza funtzioa betetzeko duela, «familiaren kontziliaziorako beharrezkoa», eta, beraz, «gainerako ikasleei arreta emateko aukera guztiak aztertuko beharko dira».

Beste neurri batzuek honakoekin zerikusia dute: irakasleentzako prestakuntza testuinguru berri egokitzearekin, antolaketaren plangintzan familien parte-hartzearekin eta espazioen eta denboren antolaketaren malgutasunarekin, ikasleentzako familien kontziliazioa errazteko.